

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO URKIDETZA UR PARTZUERGOA

Mantentze eta ustiapen lanetarako aldi baterako langile lan kontratudun bat oposizio-lehiaketa bidez hornitzeko deialdia

Iruña Okako Ur Partzuergoak, 2024ko martxoaren 1ean egindako batzar berezian, erabaki zen egungo mantentze eta ustiapen plantilla plaza batean handitu behar zela.

2024ko apirilaren 24ko bilkuran, hau erabaki zuen:

Lehenengoa: Aipatutako plaza hornitzeko deialdia arautu behar duten oinarriak onestea (jarraian transkribatzen dira).

Bigarrena: Hautaketa prozesu horren hasierari buruzko iragarkia ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena: Erakunde honetako lehendakariari ahalmena ematea langileak hautatzeko prozesua izapidetzeko behar diren erabakiak har ditzan.

Langraiz Oka, 2024ko maiatzaren 27a

Lehendakaria

JON ANDONI MERINO ÁLAVA

**OPOSIZIO-LEHIAKETA LIBRE BIDEZ IRUÑA OKAKO UR PARTZUERGOKO
PLANTILLAN HUTSIK DAGOEN MANTENTZE ETA USTIAPEN LANETARAKO
PLAZA BAT ALDI BATERAKO LANGILE LAN KONTRATUDUN BATEKIN
HORNITZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK****LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.**

1.1 Oposizio-lehiaketa libre bidez hornitzea, aldi baterako langile lan kontratudun batekin, Iruña Okako Ur Partzuergoko plantillan hutsik dagoen mantentze eta ustiapen lanetarako behargin plaza bat.

1.2 Plaza horrek 1. hizkuntza eskakizuna du, derrigortasun datarik gabe. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak (EHAA 72. zenbakia) 31. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri baloratuko da.

1.3 Plazaren soldata, aparteko ordainsariak eta gainerako ordainsari osagarriak lanpostu zerrendan talde eta maila bakoitzari ezartzen zaizkionak izango dira.

1.4 Hautaketa prozesu honek, aldi berean, behin-behineko itxarote zerrenda bat edo lan poltsa bat osatzeko balioko du eta, hala, plaza hori, behar denean, behin-behinean bete ahal izateko. Lan poltsa hori oposizioko zerrendako pertsonak osatuko dute, ez bada beren-beregi adierazten dutela parte ez hartzeko borondatea. Lan poltsa horren hurrenkera hautaketa prozesuan eskuratutako behin betiko puntuazioaren arabera finkatuko da; puntuazio hori egindako proba guztietan lortutako kalifikazio guztien batuketa izango da. Poltsak bost urte naturaleko indarraldia izango du, hautaketa prozesua egin den urtetik zenbatzen hasita. Poltsaosatzen dutenei deitzeko,

puntuazioaren hurrenkerari jarraituko zaio zorrotz; behin bakarrik deituko zaie, telefonoz eta posta elektronikoaren bitartez, bai hutsik dauden plazak behin betiko bete arte betetzeko, bai erreserba eskubidea duen titularra berrito lanean hasi arte ordeztzeko. Salbuespen gisa, hautagairen batek poltsan hasiera batean betetzen zuen tokiari eutsi ahal izango dio dagokionean dei diezaioeten, baldin eta agiri bitartez egiaztatzen badu ezin dela izendatua izan baja medikoan dagoelako edo amatasuneko baja hartua duelako. Izendatutako hautagaiak bere borondatez utziz gero lanpostua, lan poltsatik kanpo geratuko da automatikoki; alabaina, lan poltsaren azken tokian sartuko da, baldin eta legez ezarritako gainerako arrazoiengatik uzten badu.

1.5. Iruña Okako Ur Partzuergoaren estatutuen 30. artikularen arabera (2018ko martxoaren 28ko ALHAO, 37. zk.), "Partzuergoen zerbitzurako langile berriak funtzionarioak edo langile lan kontratadunak izan ahalko dira, eta parte hartzen duten administrazioetakoak baino ezingo dira izan (...)"

BIGARRENA. IZAERA ETA EZAUGARRIAK.

1. Hautaketa prozesuaren izangaiak honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea amaitzen denerako:

— Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea, edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak ezartzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukaten estaturen bateko kide izatea.

Europar Batasuneko estatuetak hiritartasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, betiere zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude; hiritartasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere —betiere zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude— parte hartu ahal izango dute, baldin eta 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Aurreko paragrafoetara aipatu ez diren atzerriko pertsonak ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Espainiako estatuan bizi badira.

— Hamasei urte beteta edukitzea eta dagokion nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina gainditu gabe izatea.

— Eskabideak aurkezteko epemugan oinarritzko ikasketen, eskola graduatuaren edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Graduatuaren egiaztagiria edo agiri baliokide baten jabe izatea edo eskuratzeko moduan egotea. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da.

— B motako gidabaimena izatea.

— Dagozkion zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

— Ez egotea, diziplina espediente bat dela medio, edozein administrazio publikoren zerbitzuetik edo autonomia erkidegoetako konstituzio edo estatutu organoetatik baztertuta, eta ez izatea, epaileen ebazpen bidez, enplegu edo kargu publikoak betetzeko gaitasun gabetze erabatekorik edo berezirik ez funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, ez eta langile lan kontratadunek betetzen dituztenen antzeko funtzioak betetzeko ere. Beste estatu bateko nazionalitatea edukiz gero, ez egotea ezgaituta edo antzeko egoeran, ez eta norberaren estatuan enplegu publikora sartzeko modu berean eragozten duen diziplina zigorraren baten edo antzekoren baten mende ere.

— Iruña Okako Ur Partzuergoan parte hartzen duten administrazioetako bateko langileen plantillan egotea.

2. Muga fisiko, psikiko edo sentzorialak dituzten izangaiak gainerako izangaien baldintza berberetan onartuko dira, eta ezin izango dira arrazoi horiengatik baztertu, betiere muga horiek ez badira bateraezinak dagozkien zereginak edo eginkizunak betetzearekin.

Desgaitasuna duten pertsonen dagokienez, epaimahaiak probak egiteko denbora eta baliabideak egokitu dituzte, gainerako parte hartzaileen aldean, aukera berdina izan ditzaten, betiere proben edukiaren mamiari eragin gabe eta eskatutako maila gutxitu edo murriztu gabe. Desgaitasuna onarpen eskaeran egiaztatu beharko da eta probak egiteko zein egokitzapen behar diren ere adierazi beharko da.

3. Lanpostuen eginkizunak, egitekoak, rolak eta bestelako ezaugarriak I. eranskinean zehaztuko dira, hautagaiek horien berri izan dezaten eta hautaketa prozesua ebaluatzeko irizpideen oinarri gisa erabiltzeko.

Lanaldia Iruña Okako Ur Partzuergoak urtero zehazten duena izango da, betiere lanpostuen izaera eta beharrian bereziki erantzunez.

Aipatutako plazak ez du ematen lana toki jakin batean egiteko eskubiderik. Plaza horretan diharduen langilea beste plaza batzuetara lekualdatua izan daiteke, baina betiere lanpostu bera izateko.

4. Hautagaien batek aurkeztutako dokumentazioan iruzurrezko zehaztugabetasunik egonez gero edo epaimahaiak jakinez gero hautagaien batek ez dituela betetzen eskatutako baldintzak, batzarrari jakinaraziko dio, hark erabaki dezan, bidezkoa bada, hautagaia hautaketa prozesutik baztertua, alde aurretik interesdunari entzunaldia emanda; horrez gain, jurisdikzio arruntari horren guztiaren berri emango zaio, hala badagokio.

HIRUGARRENA. ESKAERAK AURKEZTEA.

1. Hautaketa prozesuan parte hartzeko aurkeztu beharreko eskaerak Iruña Okako Ur Partzuergoko lehendakariari zuzendu behar zaizkio (III. eranskina), behar bezala beteta.

Atal guztiak behar bezala beteta dituzten eskaerak partzuergoaren sarrera erregistroan aurkeztu behar dira deialdiaren iragarkia ALHAOn argitara eman eta biharamunetik zenbatzen hasita hogeitaz egun naturaleko epean.

2. Eskaerak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidaren azaroaren 26ko 30/92 Legeak 38. artikuluan ezarritako modalitateetarikoa edozeinen arabera aurkeztu ahal izango dira:

“4. Hona hemen herritarrek herri-administrazioetako organoetara zuzentzen dituzten eskabideak, idazkiak eta komunikazioak aurkezteko tokiak:

a) Eskabidea zuzendu zaion administrazio-organoko erregistroa.

b) Edozein administrazio-organotako erregistroa, dela estatuko administrazio orokorrekoa, dela autonomia-erkidegoetako administrazioa, dela, honi buruzko hitzarmena izenpetuz gero, tokiko administrazioa erakunderen batekoa.

c) Posta-bulegoak, erregelamenduz ezarritako moduan.

d) Espainiak atzerrian dituen diplomaziako ordezkariak edo kontsuletxeetako bulegoak.

e) Indarrean dauden xedapenetan ezarritako gainerako tokiak.”

3. Eskaerari honako dokumentazio hau erantsi behar zaio:

— Nortasun agiri nazionalaren fotokopia konpultsatua; agiri horrek indarrean egon beharko du eskaerak aurkezteko epea amaitzen den momentuan.

— Jatorrizko herrialdeko nortasun agiriaren edo pasaportearen fotokopia konpultsatua, baldin eta hautagaiak Europar Batasuneko nazionalak badira edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsita nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatu behar zaien estatuetako batekoak badira.

— Pasaportearen edo bisaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, atzerritarren identifikazio txartela eskatu izanaren frogagiriarena edo atzerritarren bisaren eta nortasun txartelaren salbuespena eskatu izanaren frogagiriarena, baldin eta Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeak 57.2. artikuluan aipatzen duen hautagaia bada. Agiri horiek eskatu ez badira, honako hauek aurkeztu beharko dira: agintaritza eskudunek emandako agiriak, espainiarraren edo Europar Batasuneko beste estatu kide bateko herritarraren ahaidetasun lotura egiaztatzen dutenak, eta zinpeko adierazpen edo hitzemandak, ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela egiaztatzen duena eta, hala badagokio, izangaia hogeita bat urtetik beherakoa dela edo, adin horretatik gorakoa izanik, gurasoen kontura bizi dela egiaztatzen duena.

— Aurreko paragrafoetan aipatzen ez diren atzerritarrei dagokienez, Espainian legeko egonaldia egiaztatzen duen frogagiriaren fotokopia konpultsatua.

LAUGARRENA. ESKAERAK ONARTZEA.

1. Izangaiek eskaerak aurkezteak berekin dakar hautaketa prozesu hau arautzen duten oinarriak onartzea.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, batzarrak dekretuz ebatziko du hilabeteko epean zein den onartu eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda. Ebazpen hori ALHAOn argitaratuko da, bai eta partzuergoaren iragarki taulan eta haren web orrian ere (halakorik izanez gero). Ebazpenean akatsak zuzentzeko hamar egun balioduneko epea ezarriko da, bat etorritik Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeak 71. artikuluan ezarritakoarekin. Baztertutakoei dagokienez, hautaketa prozesutik baztertuak izateko arrazoiak aipatuko dira.

2. Zerrenda horietan ikus daitezkeen egitatezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

Epe hori gaindituta, erreklamaziorik balego, batzarraren ebazpen bidez onartu edo baztertuko da. Horretarako, aldeztu aurretik, onarpen edo bazterketa horien gaineko txosten juridikoa behar izango da. Ebazpenaren bidez behin betiko zerrenda onetsiko da, eta jendaurrean jarriko da, adierazitako moduan.

Erreklamaziorik ez badago, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da automatikoki.

3. Horrez gain, ALHAOn argitaratuko da zein izango den hautaketaren lehendabiziko proba egiteko eguna, ordua eta tokia, gutxien-gutxienik ariketa izan baino hogeitak egun natural lehenago. Hurrengo ariketak egiteko deialdia partzuergoaren iragarki taulan, erakundearen web orrian (halakorik izanez gero) eta aurreko proba egin den tokiko lokaletan argitaratuko da, gutxien-gutxienik proba hasi baino hogeitak lau ordu lehenago.

BOSGARRENA. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

1. Hautaketa organoak kide anitzekoak izango dira eta haien osaera kideen inpartzialtasun eta profesionaltasun irizpideei lotuko zaie; horrez gain, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko parekotasunera joko da.

2. Izendapen edo hautaketa politikoko pertsonalak, behin-behineko funtzionarioek eta aldi baterako langileek ezin izango dute hautaketa organoetan parte hartu.

3. Hautaketa organoetako kideak nor bere izenean arituko dira beti, hau da, organo horietan ezingo da jardun inoren ordezkartzan edo kontura.

4. Batzarraren ebazpen bidez izendatuko dira epaimahaiaren kideak eta haien ordezkariak, onartutakoen behin betiko zerrenda onesten den egintza berean. Epaimahaiko lehendakaria Iruña Okako Ur Partzuergoko zuzendari teknikoa izango da eta idazkaria, aldez, partzuergoko idazkari bera. Hiru bokalak eta ordezkariak Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak egindako proposamena oinarri hartuz izendatuko dira.

5. Bost kidek osatuko dute epaimahai kalifikatzailea. Kide guztiek izan beharko dute izangaiei eskatzen zaien titulazio maila bera edo handiagoa.

Titular bakoitzeko bi ordezeko izendatuko dira; lehendakariari eta idazkariari dagokienez, bi ordezeko izendatu ahalko dira. Epaimahaiko kide guztiek hitz egin eta botoa eman ahal izango dute, idazkariak izan ezik, zeinak hitz egitea izango duen, baina ezingo du botorik eman.

6. Epaimahaiko kideen abstentzioa eta errekusatzea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 28. eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera izango da.

7. Epaimahaiak aholkulariak izendatu ahal izango ditu, hautaketa prozesua garatzeko laguntza eman dezaten. Aholkulariek epaimahaiaren zuzendaritzapean jardungo dute eta haien zeregina nork bere espezialitate teknikoei buruzko aholkuak ematea izango da.

8. Epaimahaia ezin izango da osatu eta ezin izango du jardun haren kideen erdia baino gehiago bertaratu ez bada (titularrak edo ordezekoak izanik ere). Epaimahaiak ahalmenak izango ditu hautaketa prozesuan sor daitezkeen gaien inguruan ebazteko eta beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauetan ezarri ez den edozeri dagokionez. Nolanahi ere, lehendakaria eta idazkaria edo haien ordezekoak bertaratu beharko dira.

9. Epaimahaiak probetan behar bezala jokatzeko ez duten edo proben garapen normala oztokatzen duten izangaia deskalifikatzeko beharrezko diziplina ahalmenak izango ditu, baldin eta izangaiek probak gainditzeko baimendurik ez dauden metodoak erabiltzen badituzte edo haien jokabidearen bidez epaimahaiko kideenganako edo gainerako izangaienganako begirunea erakusten ez badute.

10. Epaimahaian emandako zerbitzuengatik kalte ordain edo dietei dagokienez, Zerbitzuen ondoriozko kalte ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak xedatutakoa beteko da; arautegi horren azken aldaketa ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuari dagokio.

11. Epaimahaiko kideen izendapena argitara emango da ALHAOn, partzuergoaren iragarki taulan eta haren web orrian (halakorik izanez gero).

SEIGARRENA. HAUTAKETA PROZESUAREN HASIERA ETA GARAPENA.

1. Hautagaiei proba bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie, behar bezala justifikatutako eta epaimahai kalifikatzaileak erabakiko dituen ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Batera egin ezin dituzten ariketetan, izangaiek jarduteko izango duten hurrenkera alfabetikoki hasiko da; horrela bada, "A" letraz hasten den abizeneko oposiziogilea izango da lehenengoa. "A" letraz hasten den abizenik ez badago, "B" letraz hasten den abizeneko izangaia hasiko da eta, horrela, bata bestearen segidan, Administrazio Publikoen Estatu Idazkaritzaren 2013ko otsailaren 6ko Ebazpenak azaltzen duenaren arabera; izan ere, ebazpen horretan argitara ematen da Langileak Estatuko Administrazioaren zerbitzura sartzearen Erregelamendu Orokorra (2013ko otsailaren 12ko BOE, 37. zk.).

2. Lehenengo probaren deialdia laugarren oinarrian azaltzen den bezala egingo da eta epaimahai kalifikatzaileak egokien irizten dion moduan jakinaraziko ditu emaitzak eta hurrengo deialdiak noiz izango diren. Edonola ere, jakinarazpen horiek egiteko leku egokiak dira iragarki taula ofizialak, azterketa zentroetako iragarki taulak, bide telefoniko edo telematikokoak eta partzuergoaren orria (halakorik izanez gero).

a) Oposizio aldia.

Proba hauek egitean datza:

Lehenengo proba (nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa): Idatziz erantzun beharko zaio epaimahaiak prestatutako 50 galderako test motako galdeketa bati. Oinarri hauen II. eranskin gisa agertzen den gaien zerrendari lotuta egongo dira galderak. Proba horri 0tik 50era bitarteko puntuazioa emango zaio, eta gainditzeko 25 puntu lortu beharko dira gutxienez. Erantzun zuzen bakoitzaren puntuazioa +1 puntukoa izango da; erantzuten ez bada +0 puntukoa eta erantzun oker bakoitza -0,25 puntukoa; gehienez 50 puntu lortu ahal izango dira.

Bigarren proba (nahitaezkoa eta baztertzeko indarrekoa): Idatzizko proba bat izango da, eta lanpostuaren zereginekin zerikusia duten lau kasu praktikori erantzun beharko zaie. Proba horri Orik 20ra bitarteko puntuazioa emango zaio, eta gainditzeko 10 puntu lortu beharko dira gutxienez.

b) Lehiaketa aldia.

Oposizio aldia gainditzeko dutenek hamar egun balioduneko epean aurkeztu beharko dute lehiaketa aldiari dagozkion merituen egiaztatze dokumentazioa, epaimahai kalifikatzaileak eskatzen duenetik zenbatzen hasita. Iragarkia ur partzuergoaren iragarki taulan eta web orrian (halakorik izanez gero) argitara ematen denetik aurrera hasiko da zenbatzen epea. Dokumentazioa erakundearen sarrera erregistroan aurkeztu beharko da edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38. artikuluan ezarritako bideetarikoa bat erabiliz. Epe horretatik kanpo aurkeztutako dokumentazioa ez-aurrekutatutako joko da.

Lortu nahi plazaren zereginen edukiarekin antzekotasuna duten lanpostuak bete izana baloratuko da. Izangaiek eskabideak aurkezteko epearen barruan adierazitako eta behar bezala egiaztatutako merituen azterketa eta balorazioa egingo da; gehienez 20 puntu lortu ahal izango dira, honako irizpide hauen arabera:

b).1. Administrazio publikoan edota enpresa pribatuaren hondakin urak tratatzeko instalazioekin lotutako eginkizunak zituzten lanpostuetan emandako zerbitzuengatik: 3 puntu egiaztatutako urte edo zatiki bakoitzeko; gehienez ere 5,5 puntu.

b).2. Administrazio publikoan edota enpresa pribatuaren edateko ura hornitzeko instalazioekin lotutako eginkizunak zituzten lanpostuetan emandako zerbitzuengatik: 3 puntu egiaztatutako urte edo zatiki bakoitzeko; gehienez ere 5,5 puntu.

b).3. Administrazio publikoan edota enpresa pribatuaren industriako mantentze lanekin lotutako eginkizunak zituzten lanpostuetan emandako zerbitzuengatik: 0,5 puntu egiaztatutako urte edo zatiki bakoitzeko; gehienez ere 2,5 puntu.

b).4. Beste titulazio batzuk: 2. mailako Lanbide Heziketako titulua, GMHZ edo plazaren eginkizunekin lotutako balioidea: puntu 1.

b).5. Euskararen ezagutza egiaztatzeagatik: 1. HE edo handiagoa, 5,5 puntu.

Hizkuntza eskakizunak egiaztatu eta balioesteko, 86/1997 Dekretuaren 41. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

ZAZPIGARRENA. EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA.

1. Izangaien kalifikazioa amaituta, epaimahaiak gainditutakoen zerrenda argitaratuko du, oinarri hauetan ezarritakoarekin bat eskuratutako puntuazioaren hurrenkeraren arabera.

Berdinketa gertatuz gero, kasu praktikoen puntuazio handiena nork lortu duen hartuko da kontuan izangaien azken hurrenkera ezartzeko. Hala ere berdinketa izanez gero, lehenengo proban eskuratutako puntuazio handiena nork lortu duen hartuko da kontuan.

2. Epaimahai kalifikatzaileak ur partzuergoko batzarrari helaraziko dio gainditutako izangaien behin betiko zerrenda, bai eta plaza betetzeko izangaiena ere, zeinaren kopurua ezin baita izan deitutako plazak baino handiagoa. Horrez gain, epaimahaiaren azken bilkuraren akta ere bidaliko dio. Epaimahaiak aldi baterako langile lan kontratudun izendatuak izateko proposatutako izangaiek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute hamar egun naturaleko epean, gainditutakoen zerrenda iragarki taulan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita:

a) Medikuen ziurtagiria, egitekoa normaltasunez betetzea galaraziko dien gaixotasun edo akats fisikorik ez dutela frogatzeko.

b) Zinpeko adierazpena edo hitzematea, adierazteko ez daudela edozein administrazio publikoren zerbitzutik baztertuta diziplina espediente bidez, eta ez daudela funtzio publikoetan

jarduteko ezgaituta epai irmo bitartez. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, Espainiako estatuari buruzko adierazpenaz gain, zinpeko beste adierazpen bat edo hitzemande bat aurkeztu beharko dute, adierazteko ez daudela ezgaituta edo egoera baliokidean eta ez dietela ezarri haien estatuan enplegu publikoa lortzea galaraziko liekeen diziplina zehapenik edo baliokiderik.

Funtzionario publikoek ez dituzte egiaztatu beharko aurreko izendapena lortzeko egiaztatu zituzten baldintza eta betekizunak; haien ministerio, administrazio edo erakundearen egiaztagiri bat soilik aurkeztu beharko dute, haien egoera eta espediente pertsonalean jasotzen diren gainerako inguruabarrak egiaztatzeko.

3. Ezingo dira izendatu aipaturiko dokumentazioa aurkeztu beharreko epean aurkezten ez dutenak, ezinbesteko arrazoiren bat izan ez bada behintzat, ezta aurkezturiko dokumentazioak erakusten duenaren arabera deialdiko baldintzaren bat betetzen ez dutenak ere. Horrelakoetan, ordura arteko jardun guztiak baliogabetuko dira, eta parte hartzeko eskaeretan faltsukeriaz jokatzegatik erantzukizuna ere eska dakieke. Halakoetan, partzuergoaren lehendakariak izendapena egingo du hautaketa prozesua gaingitu bai baina, baliogabetzea izan arte, deitutako plazen kopuruaren barruan sartzen ez zen hautagaiaren alde.

Epaimahai kalifikatzaileak ahalmena du sortutako zalantzak argitzeko, bai eta hautaketa prozesuaren garapen egokirako behar dena erabakitzeko, betiere oinarri hauetan zein legeria osagarrian ezartzen ez diren alderdiei dagokienez.

ZORTZIGARRENA. PRAKTIKALDIA.

1. Aurreko oinarrian aipatzen diren agiriak aurkeztu ondoren, proposatutako izangaiei praktikaldiko lan kontratua egingo zaie, gehienez 6 hilabeterako.

2. Praktikaldia amaitu baino lehen, lehendakariak eta zuzendari teknikoa txosten bat egingo dute izangaiari buruzko honako informazio hau adierazteko: lanerako dituen abileziak eta trebetasunak, lanerako gaitasuna eta errendimendu profesionala, erantzukizuna eta eraginkortasuna, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa. Kontuan hartuko da, era berean, lan taldean integratzeko erakutsi duen gaitasuna eta kanpo harremanetan izandako zuzentasuna eta interesa.

3. Iruña Okako Ur Partzuergoaren batzarra lanaren ebaluazioari buruzko txostenak balioztatzeko bilduko da eta, izangaia praktikaldia gaingitu duela uste badu, hala adieraziko du; bestela, izangaia kontratatatu mugagabea izateko eskubidea galduko du. Aurreko izapidea bete ondoren, batzarrak lehendakaria ahaldunduko du dagokion lan kontratu mugagabea formalizatzeko praktikaldia gaingitu duen izangaiarekin. Ebaluazio txostena negatiboa izanez gero, aldeztatik entzunaldia emango zaio interesdunari.

BEDERATZIGARRENA. ERRESERBA ZERRENDAREN FUNTZIONAMENDUA.

Epaimahaiak langileen arloan eskumena duen organoari helaraziko dio gainerako izangaien zerrenda, hau da, oposizio aldiko proba guztiak gaingitu bai baina bete beharreko plaza kopurua baino gehiago izateagatik aldi baterako langile lan kontratudun gisa kontratuak izateko proposatuak izan ez diren izangaien zerrenda.

Izangai horiek "erreserba zerrenda" bat osatuko dute oposizio-lehiaketan eskuratutako puntuazioaren hurrenkeraren arabera. Zerrenda hori partzuergoaren iragarki taulan eta web orrian (halakorik izanez gero) argitaratuko da eta erakundeak etorkizuneko aldi baterako lan kontratazioak betetzeko erabili ahal izango du deialdi publiko honen xede izan diren kategoria profesionalean; horrek ez du inolako loturarik sortuko izangaiaren eta toki administrazioaren artean. Zerrendak bost urte naturaleko indarraldia izango du, hautaketa prozesua egin den urtetik zenbatzen hasita.

Poltsa osatzen dutenei deitzeko, puntuazioaren hurrenkerari jarraituko zaio zorrotz, telefono dei eta posta elektronikoaren bitartez; behin bakarrik deituko zaie, bai hutsik dauden plazak behin betiko bete arte betetzeko, bai erreserba eskubidea duen titularra ordeztzeko berriro lanean

hasi arte. Salbuespen gisa, hautagaien batek poltsan hasiera batean betetzen zuen tokiari eutsi ahal izango dio dagokionean dei diezaioten, baldin eta agiri bitartez egiaztatzen badu ezin dela izendatua izan baja medikoan dagoelako edo amatasuneko baja hartua duelako. Izendatutako hautagaiak bere borondatez utziz gero lanpostua, lan poltsatik kanpo geratuko da automatikoki; alabaina, lan poltsaren azken tokian sartuko da, baldin eta legez ezarritako gainerako arrazoiengatik uzten badu.

Izangaiei une zehatzen batean eskaintzen zaien kontratuari uko egiteak berekin dakar zerrendan betetzen duten postuari uko egin beharra, eta ez zaie berriro deituko, harik eta zerrenda horretako izangai guztiei deitu arte.

HAMARGARRENA. GORABEHERAK ETA AURKARATZEAK.

Deialdi hau, haren oinarriak, eta haren ondoriozko eta, era berean, epaimahaiaren jardueraren ondoriozko administrazio egintza guztiak aurkatu ahal izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak araututako epean eta moduan.

Oinarri hauetan zehaztu gabe gelditu diren gaiei dagokienez, epaimahaiak izango du zalan-tzak argitzeko eta hautaprobeen garapen egokirako behar dena erabakitzeko ahalmena.

Oinarri hauetan ezartzen ez denari buruz erabakitzeko, hauetan xedatutakoa hartuko da kontuan: apirilaren 12ko 7/2007 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena; apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen; apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretua, eta harekin bat datozen gainerako xedapenak; ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua, toki administrazioako funtzionarioak aukeratzeko hautaketa prozesuak bete beharreko oinarrizko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituen; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena, eta otsailaren 2ko 16/1993 Dekretua, zerbitzu arrazoiengatik kalte-ordainei buruzkoa (azken aldaketa ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuari dagokio).

I. ERANSKINA

LANPOSTUAREN EGINKIZUNAK

1. Esleitutako prozesuaren edo prozesuen instalazioetan modu eraginkorrean jardutea.
2. Egun dauden prozeduretan finkatutako jardun arauak eta hierarkiaren bidezkoak betetzea.
3. Jardun datuen erregistroak betetzea esleitutako prozesu bakoitzerako eta noizean behin eskatzen direnetarako.
4. Erreaktiboak, olioak, koipeak eta abar amaitzen direnean hornitzea, beharrezko jarraibide teknikoei jarraituz hala eskatzen duten prozesuetan.
5. Ustiatetik azpiproduktuak kentzea, ondoren kudeatu eta ebakutzeko, ezarritako jarraibideei jarraituz.
6. Aldian-aldean egiaztatzea, tresna egokien bidez, makinak egoera onean daudela, arauen arabera eta haietan ezarritako maiztasunarekin, hala eskatzen zaionean.
7. Esleitutako prozesuen instalazioak garbi eta seguru mantentzea.
8. Esleitutako prozesuei antzemandako akatsen berri bide hierarkikotik ematea.
9. Mantentze lanak behar bezala garatzeko laguntza ematea eta gai horren inguruan agindutako zereginak betetzea.
10. Laneko arriskuak prebenitzeko ezarritako prozedurei jarraitzea.
11. Txanda aldaketarik balego, txanda aldaketen protokoloa betetzea.
12. Ur laginak jaso eta dekantagailuetako lohi kontzentrazioaren mailak aztertzea, instalazioetan jaso eta tratatutako uraren egoera zehazteko datuak biltze aldera.
13. Erreaktiboak deskargatu eta neurtzea, jasotako uraren tratamendurako erabili ahal izateko, beti ere segurtasun neurriak kontuan izanda.
14. Arduradun teknikoak agindutako eginkizunak betetzea instalazioak abian jartzeko prozesua osatze aldera, instalazioen operatibotasuna uneoro bermatzeko; horren barruan guardiak modu koordinatuan egiteko beharra sartzen da, bai eta gaitasun mailaren arabera presazko jarduketak ere.
15. Instalazioetako mekanismoak, instalazioak eta ingurua garbitzea, baita flotatzen ari diren elementuak kentzea ere, instalazioak garbi eta higieniko egon daitezen.
16. Partzuergoaren zuzendaritzak agindutako bestelako lanak, dagozkion lanekin zerikusia badute.

II. ERANSKINA

GAI ZERREDA

1. atala. Ezagutza orokorrak

1. gaia. Ur partzuergoa. Partzuergoa eratzea eta huraosatzen duten erakundeak. Partzuergoaren helburuak. Nortasun eta gaitasun juridikoak. Administrazio ahalmenak. Partzuergoaren organoak eta ahalmenak. Funtzionamendua. Baliabide ekonomikoak.

2. gaia. Laneko arriskuen prebentzioa. Defentsak eta babesak. Txukuntasuna eta garbitasuna. Istripua izan dutenak eta gaixoak garraiatzea. Arriskuen ebaluazioa. NBEak. Eremu konfinatuetan lan egitea.

3. gaia. Kalitateari buruzko kontzeptu orokorrak. Egungo araudia. Kalitatea kudeatzeko sistemak. Kalitateari buruzko eskuliburuak. Kalitate ziurtagiriak.

4. gaia. Saneamendu prozesua. Ohiko tratamendu prozesuaren definizioa. Instalazioko elementuen deskribapena eta edukia. Alderdi teknikoen definizio orokorra. Antolakuntza alderdien definizioa. Jardun nagusiak.

5. gaia. Hornidura prozesua. Ohiko hornidura prozesuaren definizioa. Instalazioko elementuen deskribapena eta edukia. Alderdi teknikoen definizio orokorra. Antolakuntza alderdien definizioa. Jardun nagusiak.

2. atala. Edateko uren araztegiarekin jardutea

6. gaia. Aurretratamendua. Dekantazioa. Iragazketa. Desinfekzioa. Lohien tratamendua.

3. atala. Hondakin uren araztegiarekin jardutea

7. gaia. Aurretratamendua. Lehen mailako dekantazioa. Tratamendu biologikoa. Bigarren mailako dekantazioa. Lohien tratamendua. Loditzea. Lehortzea Errausketa.

4. atala. Neurtze tresnak

8. gaia. Kontzeptuak eta neurtzeko tresnak. Tenperaturak, emariak, bolumenak eta uhertasuna. Termometroak, termopareak, emari neurgailuak, eta abar.

5. atala. Informatika

9. gaia. Word: ezagutza orokorra, edizioa, formatua, testu blokeekin lan egitea, txantiloak, agiriak batzea, eta abar. Excel: ezagutza orokorra, gelaxkak, barrutiak, funtzioak, taulak, grafikoak. Power Point: ezagutza orokorra, edizioa, formatua, testu blokeekin lan egitea, ereduak, eta abar.

III. ERANSKINA**ESKAERA EREDUA**

..... jauna/andrea, adin nagusikoa, NAN zenbakia duena, (e) ko aren (e)(a) n jaioa, probintzian, eta helbidea honako hau duena: kalea, zenbakia, herria, posta kodea, telefonoa. Honako hau adierazten du:

Honako honetan onartu dezatela eskatzen du: oposizio-lehiaketa libre bitartez Iruña Okako Ur Partzuergoan hutsik dagoen mantentze eta ustiapen lanetarako behargin plaza bat langile lan kontratudun batekin hornitzeko deialdia.

Ez duela lanpostuari dagozkion zereginak betetzea eragotziko dion inolako gaixotasunik edo akats fisikorik edota psikikorik.

Ez duela indarrean dauden lege xedapenetan ezartzen diren ezintasunetako bat ere.

Ez dagoela diziiplina espediente bidez inongo administrazio publikotatik baztertua, ez eta eginkizun publikoak betetzeko ezgaiturik ere.

Badaukala deialdiaren 3. oinarrian adierazten den titulazioa.

Eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Azterketa egin nahi duela (adierazi euskaraz edo erdaraz).

Azaldutako guztiagatik,

eskatzen dut eskaera hau onartu dadila eta, ondorioz, hautaprobak egiteko baimena eman dakidala.

....., 2024koaren(a).

Sinadura.